



Gomendaturiko sarrera soslaiak –Euskal Hizkuntza eta Kulturako Gradua

Euskal Hizkuntza eta Kulturako Graduako ikasketetan sartu nahi duten ikasleei gomendaturiko sarrera soslaiak honako ezaugarriak ditu:

- EAEko edo Nafarroako batxiler mailako gaitasunak izatea.
- Euskararen eta gaztelaniaren menderakuntza maila ona izatea (Erreferentziazko Esparru Europar Komunaren arabera C1) edo bestela maila hori lortzeari begira behar diren neurriak hartzeko jarrera erakustea graduan sartuaz batera. EGA lortu izana ez da beharrezkoa.
- Gutxienez ingeleseko B1 maila izatea, Erreferentziazko Esparru Europar Komunaren arabera, eta C1 mailara heltzeko behar den lana egiteko jarrera erakustea.

Graduaren gaitasunen garapena errazten duten ezaugarri multzoaren arabera dira gomendio horiek. Hortaz hautaketa prozesuan hobetsitako osagaiak dira.